

AGERIKO BATZARRA

Donostian, 2000.eko azaroaren 24an

Donostian, Gipuzkoako Diputazioaren jauregian, 2000.eko azaroaren 24an, arratsaldeko bostetan eman dio hasiera Euskaltzaindiak T. H. Wilbur eta J. Allières euskaltzain ohorezkoen eta Peter Etxeberria euskaltzain urgazle zirenen omenezko bilkurari.

Honako jaun-andre hauek bildu dira: J. Haritschelhar euskaltzainburua, H. Knörr buruordea, P. Goenaga idazkaria eta J. A. Arana diruzaina mahaian, eta P. Altuna, Miren Azkarate, P. Charriton, A. Iñigo, X. Kintana, J. M. Lekuona, B. Oihartzabal, F. Ondarra, Tx. Peillen, J. San Martin eta Andres Urrutia euskaltzainak, eta honako euskaltzain urgazleak: R. Badiola, G. Barandiaran, Andolin Eguzkitza eta J. L. Lizundia.

T. H. Wilburren hilberria.

Hasierako agurraren ondoren, euskaltzainburuak Andolin Eguzkitza jaunari eman dio hitza Terence Harrison Wilbur irakasle eta euskaltzain ohorezkoaren hilberri txostena irakurtzeko. 1924an jaioa, hirurogeita hamasei urte bete gabe hil zen, hogeita hemeretzi urtez irakasle lanetan jardun ondoren germanistikaren arloan. Txostengileak Wilbur jaunarekin izandako harremanen berri eman du eta haren lanen goraipamena egin: Schuchardt-i buruzkoak, euskal gramatikazkoak (*Prolegomena to a Grammar of Basque*) eta beste hainbat lan aipatuz.

Peter Etxeberriaren hilberri txostena.

Ondoren, William Douglass jaunak prestatu eta Jon Artzak euskaratutako Peter Etxeberria euskaltzain urgazle zenaren hilberri txostena irakurri du H. Knörrek.

Aita lekeitiarra, ama Apatamonasteriokoa; euskaldun eta euskaltzale sutsua; legegizon ospetsua.

Jacques Allières jaunaren hilberri txostena.

Jean Haritschelhar euskaltzainburuak irakurri du Allières euskaltzain ohorezko zenaren hilberria.

Allières irakaslearen ikerketetan euskarak parte handia izan duela azpimarratu du hizlariak. Euskal Herriko Hizkuntza Atlasaren premia aspaldi ikusi zuen. Gaskoinaren ikasle, euskal aditzaren aztertzaile, eskema egokiak asmatuz, etab.

Gaskoinaren eta euskararen arteko kideetasunak aztertu zituen. Euskarari dago-kionez, liburu ederrak eta erabilgarriak utzi zituen. Euskararen enbaxadorea mundu guztian: Japonian, Ipar eta Hego Ameriketara, Georgian eta Europa osoan.

Euskaltzaindiarekin lotura berezia izan zuen: urgazle, euskalarien biltzarrean partaide, gero euskaltzain ohorezko. Norbaitek goraiatu badu euskara munduan, hori da izan Allières.

H. Knörren hitzaldia: “Jacques-Auguste de Thou Leizarragaz mintzo”

Hilberri txostenen ondoren, H. Knörr jaunak beste txosten labur bat aurkeztu du “Jacques-Auguste de Thou Leizarragaz mintzo” izenburuarekin. Politikari honek idatzitako oroitzapenetan Leizarragari egindako ikustaldia aipatzen da. Aipamen-testu hori ekarri du Knörr jaunak gogora.

Eskerrak eman dizkio ondoren euskaltzainburuak hizlariari eta elkarrizketa labur bat sortu da. Testuan ageri den *Saint Jean de pié de Porc* horretaz Xabier Kintanak dio mapa zahar batean berak ere *port-en orde* *porc* ikusi zuela eta harrigarri egin zitzaiola. Haritschelhar jaunak erantzun dio esanaz aldi bat baino gehiagotan erabili izan dela hori: “St. Jean pie de cochon”. *Atapuerca* bera ere ez ote da *atapuerta?* galdetu du Kintanak. J. L. Lizundiaren arabera, Merino Urrutiarentzat euskal toponimia inguru horretaraino iristen da. Belorado inguruko toponimia azterkizun dagoela.

Eta horrenbestez, seiak hoge gutxitan amaitu da arratsaldeko bilkura.